



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2019ko azaroaren 14an, **498** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

IKUSIRIK: 2019ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei euskara ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: Barrundian erroldatuta egotea eta euskara eskoletan ehuneko 75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, **HABE** edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2018-2019 dagokionari da.

Oinarri horiek 2019ko urriaren 09ko (117. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2019ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Ania Caceres Lauzurica andreak, epean eta era egokian, 2018-2019 ikasturteari dagokion beka eskaria aurkeztu du.

IKUSIRIK: Udaleko Hizkuntza Normalizatzaileren Teknikariak 2019ko azaroaren 08an luzatutako txostena.

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 335.480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA.- Ania Caceres Lauzurica andreari, 2018-2019 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horren zenbatekoa 388,55 €takoa da.

BIGARRENA.- Beka berehala ordaintzea 335.480.001 partidaren pentzutan.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2019ko azaroaren 14an.

